

Gaia: Zarauzko merkatu plaza

Egilea: "Altxa porru"

Doinua: Bizkaiko aberatsak

- | | | |
|---|---|--|
| <p>1.
Bertso batzuk jartzeko
merkatu plazari
gogoz nenbilen asko
ez da hartaz ari
eusten ez dion arren
orduko martxari
oraindik bada zenbait
denda, nekazari
nortasuna emanaz
herri bizitzari.</p> | <p>4.
Eskura dezakezu
bertakoa bertan
ez zabilta edonon
eta edozertan
landatu duenaren
esku berberetan
jasoko duzu xorta
hori gehienetan
porruak hitz egin du
bere ezpainetan.</p> | <p>7.
Bizpahiru arrain kutxa
gertu dituela
begirada zorrotza
eztarri umela
oihuka hasiko da
"antxua duela"
Inoiz pentsa izan dut
hura kantuz dela
soprano txarra ere
ez litzatekela.</p> |
| <p>2.
Iraupen luzekoa
bezain emankorra
alde zaharrak beregan
gorde du altxorra
nahiz handik pasatzea
izan derrigorra
erdigune da baina
da bide zidorra.
Noizbait izan ginenak
bistan du zilborra.</p> | <p>5.
Goizez elkartzen dira
baserritar batzu
babak aletuz ea
nork egingo kasu
pasa ostean zenbait
egonaldi antzu
saltzeko pronto ilar,
babarrun, garbantzu...
Amaitzean hartuko
balute deskantsu!</p> | <p>8.
Horra getariar bat
merkatuko ikur
bere kastak oraindik
ez ditu bi simur
errutinari egin
ohi dio atximur
ertzetik ariko da
gordin bezain samur
txikitasunak badu
horrenbeste glamour.</p> |
| <p>3.
Garaiko elikagai
fruta nahiz barazki
lore, gazta, haragi,
arrain ta hegazti
saskirik sakonenak
osatzeke aski
zaindu ditzagun bertan
daudenak zehazki
bihur ez dadin zuri
beltzeko argazki.</p> | <p>6.
Ondutako gazta zahar
ketu nahiz gabeko
Aia, Aralar edo
Irati aldeko
"hau ona lagun arte
hobean jateko"
beti bada zer esan,
entzun, jakiteko
harremana denean
hartu emaneko.</p> | <p>9.
Ez badu nora igo
ez da sortzen huntzik
emakumeek eusten
dute hura zutik
gainontzean legoke
merkatua hutsik
lan egin askok esker
ona jaso gutxik
inorentzat ez dut nahi
halako birusik.</p> |

10.

Aspaldi banatua
zuten bi pisutan
nekazariak behean
edozein kasutan
bazen arrainik goiko
postu zenbaitzutan
ikusmira pasilu
zalapartatsutan
izotz artean baina
mingain puntak sutan.

11.

Bakandu dira lehengo
joan etorriak
nola lorea galtzen
duen elorriak
ezin bat egin asmo
eta jatorriak
behar baino lehenago
ahaztean herriak
orain gara bertako
turista berriak.

12.

Bestelako joerak
dira nabarmendu
merkatal zentru batek
denetik omen du
txikiak ihartzean
handiak gizendu
urte gutxitan zenbat
aldatu garen gu
egiak sarri lotsa
ere ematen du.

13.

Bizi gara neoizko
argien liluran
roboten gisan baina
pertsone itxuran
jateagatik janez
estresaren mugan
tomateak neguan
azak berriz udan
behar ez dugunetik
gehiegi dugu han.

14.

Eroste ohituretan
bada zer aldatu
errazenera hobe
dugu ez moldatu
ezin al dira gure
arimak goldatu
ondoan daukagunik
zertan alboratu
ez ditzagun bertsoetan
soilik gogoratu.